

EUSKERA BATUA AZTERGAI

DEIA gure egunkarian alkar-izketa bat agertu dau Koldo Zuazo'k (2005-01-24). Gaia Euskera batuaren edestia eta gaurko egoera da eta egun onetan idaz-lan au agertzeko zioa berak argitaratu dauan "Euskera batua, eziña ekinēz egiña" aurkeztea.

Liburu ori eskuetan daukagunean arazoa sakonago ta zabalago aztertuko dogu, baiña gaurkoz, beioaz bein-beiñeko eritxi oneik. Euskerazaintza Euskerearen Erri-Akademian giroan egiten dogu idaz-lan au, gitxienez jakin dagien beste era batera pentsatzen dogunak be oraindiño bizi garala.

...

Datazko egun bi dira garrantzitzuenak arlo onetan, bata batua Arantzazu'n sortu zan 1968n. urtekoa eta beste 1978n. urtean Bergara'n egin zan batzarrarena. Azkenengo egun au batuaren amar urteak aztertzeke izan zan, baiña an ez egoan aztertzeke erarik, erabagiak artuta egozan batzarra egin baiño lenago.

Batzar bi orreitan argi agertu zan Euskaltzaindiaren gogorkeria, setakeria, eta Bizkai'ko euskerea baztertzeke gurari bizia. Zergaitik gurari au? Ez dot aurkitu Koldo Zuazo'ren erantzunik. Bizkaiarea alboratuta egiña dan batua ez dogu iñoz onartuko. Samiña da bizkaitarrak arlo onetan izan dogun isiltasuna edo bildurra. Emen gagoz bizkaitarrak eta euskaldunik erdiak geu gara.

...

XVI mendetik asita egin diran alegiñak gogoratzen dauz idazleak, baiña alegin orrei jaramon gitxi egin jake, esaterako Azkue'ren gipuzkoera osotuari. Zergaitik? Ba-dirudi aspaldion erabilten dan euskera batua orrantza doala, gipuzkoera batua geiago dala, asieran ezarri nai izan zan Iparraldekoa baiño.

...

Batuaren bidea "luzea ta neketsua" izan ei da. Obeto esanda legoke bide ori "gitxi batzuk asmatua, setakeriz agertua eta aginpidez ezarria" izan zala esatea.

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

Oraindiño gaur be atxea bearrezkoa dan erri zeiri itauntzen dautsagunean, alperrekoa dala erantzuten dau eta bizkaierea batura sartu bear dan itauntzen ba'dautsagu erriak baietz erantzungo dau. Onartuko leukee, bear ba'da, gipuzkoera osotu bat, baiña ondo egiña, "osotua" ba'da.

Batuak sortu ebazan zalaparta aundiak aitatzen dira, baiña zalaparta orreik eta geiago bearrezkoak zirala esan bear, batua txarto egiña zalako.

...

Batua bearrezkoa zala gauza ziur lez ezarten dau Zuazo jaunak, baiña ni ez nago ain ziur. Baturik ez zan bear, naikoa zan norberarena eta beste euskalki bat jakitea

Zuberera ez litzakela sartuko or? Ez, egia da, baiña batua jakin arren zuberera ez da gutzat errezagoa eta zuberotarrentzat be ez da batua ulertzea errezagoa. Eurak ez dabe erabilten baturik, eurena baiño.

Zer lortu dogu? Lengo euskerea eta, gaiñera, batua ikasi-bearra. Euskera batua ez da euskaldun guztiok, Zuberotarrak barru dirala, ulertzeke modukoa eta ez dogu uste iñoz be izango danik. Eta Zubero'ko euskerea galtzeke arriskua ugaritu egiten dau batuak.

...

Euskalkiak agozko jardunerak dirala diño idazle onek, baiña ez begi aitzu euskalkiak benetako izkuntzak dirala eta elerti-arloko liburutik onenak euskalkiz idatziak.

Batuan, oster, ez dagoala elerti-arloko punterengoa dan idazkirik. Orrelantxe jazo zan Grezia'n, "koine" sortu zanean, orduko elerti ederra betiko galdu zan.

...

Eta irakaskintzarako bide egokia gure Juan Luis Goikoetxea'k bere Maisu-Lan Nagusian agertzen dauana da: Euskerea jakitea, lenengo euskalkiak eta gero batua jakitea da, Labairu taldearen oiua dan lez, "dakigunetik ez dakigunera".

...

Euri asko egin dau batua sortu zanetik. Gaur ainbat gauza egiñak dira, setakeriz eta agintarien laguntzaz lortuak, baiña or dagoz.

Guztiok ikusi bear dogu aurrerantzean euskerea nondik nora eta zelan zabaltu eta sendotu bear dogun, bizkaierea alboratu barik, bizkaiereari batuaren barruan zor jakon lekua emoten jakola.

Olazar'tar Martin'ek